

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA EUSKARA BATUAZ

Euskara Batua dela eta gizartean dabiltzan uste okerrak eta egiten diren gehiegikeriak ikusirik, hau adierazten du Euskaltzaindiak:

1. *Euskara Batua* Euskaltzaindiak 1968.etik aurrera batasunerako eman dituen arauak bakarrik osatzen dute. Hau dela eta Euskaltzaindiak esan behar du badirela han eta hemen arau batzuk, euskara batukotzat jotzen direnak eta Euskaltzaindiak inoiz ere eman ez dituenak. Hortaz, oraingoz *emaile emale* bezain zilegi da euskara batuan; era berean, *barik nahiz gabe, hetsi zein itxi, lagundu dut edo lagundu diot*, etab.

2. Arautzeke zeuden puntuei begira (zenbakien idazketa, *bat, batzuk*-en deklinabidea, etab.), batasunerako gomendioak ematean, azken urteetako erabilera ahantzi gabe, literatur tradizioa du Euskaltzaindiak oinarrizko irizpide eta han zabalduena eta erabiliena den forma hobesten du. Horregatik gomendatu da *arabera*, eta ez *arauera*.

3. Euskaltzaindiak ezagutzen ditu azken urteetako bateko eta beste erabilerak. Hala ere, Arantzazun batasunerako ireki zuen ildoari jarraitu behar dio. Adibidez, Euskaltzaindiak *hogeita hamar* idaztea gomendatzen badu eta ez *hogeitamar*, bere garaian *zahar* eta ez *zar*, *ahalegin* eta ez *alegin* onartu zituen arrazoi beragatik gomendatzen du.

4. Literatur ondarea bere osoan hartzen du kontuan Euskaltzaindiak batasunerako inongo euskalkirik baztertu gabe.

Zornotzan, 1993.ko maiatzaren 28an